

JOSÉ ANTONIO SANGRONIZ OTAEGI, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LIZITATZAILAILEEN ETA ENPRESA SAILKATUEN ERREGISTROAREN LETRADU ARDURADUNA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO SEKTORE PUBLIKOAREN KONTRATAZIOAREN ARAUBIDEA EZARTZEKO UZTAILAREN 27KO 116/2016 DEKRETUAN XEDATUTAKOAREN ONDORIOETARAKO.

ZIURTATZEN DUT:

Nire karguaren erregistro honetan dagoen dokumentaziotik ondorioztatzen denez, B95059721 IFZ duen **"TRANSPORTE SANITARIO BIZKAIA, S.L."** enpresak kontratatzeke debeku baten eraginpean egoteari utzi dio.

Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko sailburuordearen 2019ko apirilaren 10eko ebazpenaren bidez, inskribatutako merkataritza-enpresa kontratatzeke debeku bat deklaratzera erabaki zen, eta debeku horrek honako enpresa hauei ere eragiten zien: zuzentzen dituzten pertsonengatik edo beste inguruabar batzuegatik, haiek parte hartu zuten beste enpresa batzuen jarraipena edo ondorengoa izan zitezkeelakoan, eraldaketa, bat-egite edo ondorengotzaren ondorioz.

Osasun Saileko Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko sailburuordearen 2020ko ekainaren 30eko Ebazpenaren bidez, prozedura iraungitzat jo zen, aipatutako ebazpenaren gorputzean jasotako egitate eta oinarri juridikoetan oinarrituta inskribatutako merkataritza-sozietatea kontratatzeke debekua ezartzeko eta jarduketak artxibatzeko agintzeko, hargatik eragotzi gabe preskripzioa gertatu ez balitz beste prozedura bat hastea.

Era berean, Lizitatzaileren eta Enpresa Sailkatuen Erregistroari jakinaraztea erabaki da, inskribatutako merkataritza-enpresaren kontratatzeke debekuaren inskripzioa ezezta dezan.

Osasun Saileko Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko sailburuordearen 2020ko ekainaren 30eko ebazpenaren edukia betez, bertan behera uzten dut kontratatzeke debekuaren inskripzioa, gaurtik aurrera izango baititu ondorioak, eta horren berri ematen diot Osasun Saileko Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritzari.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 14a.